

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gizaburuaga

Aurkibidea

Udalerria: Gizaburuaga

Sarrera



Lea-Artibai eskualdeko herri hau Munitibar eta Lekeitioko arteko bideab kokatzen da eta herri hauek ditu mugakide: Ispaster iparraldean, Aulesti hegoaldean, Amoroto ekialdean eta Nabarniz mendebaldean.

Gizaburuagako jarduera ekonomiko nagusia nekazaritza izan da betidanik. Dena den, 1987. urtean, Lea ibarreko herriek, Okamikako Industrialdea eraiki zuten 400 lanpostu inguru sortuz. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 205
- **Euskaldunak:** %98,23

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **11**
- Pasarteak: **13**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **13**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak

Hizlariak

Jabier Goikoetxea Murelaga (1939)



Okamika auzoko Goikoetxean jaio eta bizi izandakoa. Aita bertakoa zuen eta ama Gizaburuaga bertako Errotabarrikoa. Lau neba-arrebatatik hirugarrena izan zen bera. Bere koinatuagaz batera, [Jesus Zabalgaz](#), kontatu zizkigun eskola garaiko eta gaztetako bizimoduaren berri.

Angelita Onaindia Ulazia (1919-2011)

Gizaburuagan jaio zen, Lariz-Oleta izeneko okindegian. Aita Iurretakoa zuen, okina, eta ama Lekeition sortua. Bost anai-arrebetan laugarrena zen Angelita; haurdunaldian amak 1918ko gripea izan zuen, baina onik irten ziren biak. 6 urterekin Lekeitioko eskola batean egon zen interna, eta Batxilerra Bilboko Institutuan egin zuen. Ondoren Magisteritza ikasi zuen, eta hainbat lekutan ibili zen eskolak ematen. Bere senarra izango zena, Manuel Gojenola, Amorothon jaio zen, Goiobeaskoa baserrian. 20 urte Argentinan, La Pampan, igaro ostean Euskal Herrira itzuli zen eta orduantxe ezagutu zuten elkar. Ezkondu, eta AEBetako Idaho estatuko Shoshone herrira joan ziren bizitzera. Manu izeneko semea izan zuten bertan. Senarrak hainbat arrantxoren ardura zuen eta Angelita maistra lanetan hasi zen Shoshoneko Institutuan, gaztelania erakusten; han Kelly deitzen zioten. 1965ean itzuli ziren Euskal Herrira (Manu semeak euskara eta ingelesa soilik zekizkien). Bilbon bizi izan ziren. Angelitak ingelesezko eskolak eman zituen, erretiroa hartu arte. Manu semeak 2002-2006 urteen bitartean amari egindako elkarrizketak jaso ditugu hemen.



Jesus Zabala Arostegi (1935-2016)

Okamika auzoko Okamikabekoan jaio eta hazi zen. Ama bertakoa zuen eta aita Bengolaerrotakoa, urte luzetan Ameriketan egondakoa. Auzo bereko Goikoetxera ezkondu zen eta bertan osatu zuen familia. Fruta-arbolen zainketan aditua urte askoan etxean zein etxetik kanpo aritu izan da lan horretan. Bere koinatua den [Jabier Goikoetxea](#) gaz batera egin genion elkarrizketa.



Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Maistraren makilkadak

- **Hizlaria(k):** Goikoetxea Murelaga, Jabier; Zabala Arostegi, Jesus

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: GIZ-001/005
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:11:13. **Bukatu**: 00:15:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eskolan hamalau urtera arte ibili zen Jabier. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Maistrak makilak izaten zituen eta jo egiten zituen. Isilik eta zuzen egon behar izaten zuten ikasleek. Jesusek bere lagun bati gertatutakoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Jabier: Lehen, nire aitte zanak esaten eban hamaika urteaz urten ebalak berak eskolatik. Nire aittek, e! Mil novecientosen jaixue zan ta mil novecientos oncera arte ibili zala eskolan. Zortzixen sartu ta hamaikan urten, hiru urte. Juten zanin. Beti ez. Gero, gure denporan atzeratxuau. Nik hamalauaz. Ya hamalauaz urtetan badozu eskolatik, ya hasten zara beste biher baten, ya... enpresie han daukozu: hau. Enpresie, gure enpresie haxe izen da.

- Klaro, basarrix.

- JA.: Ordurik neurtu ez ta sueldorik markau ez. Gauza bi onak. Ordurik ez markau, e! Ordue... ekin! Egunero. Ta sueldue zenbat irabaziko dozu, hori gero ikusi.

- Irabazi ezker.

- JA.: Zeozer... gosiek ez gaittu hil ta, artue edo garixe edo zeozer.

- Ta nungo eskolara jua ziñien? Hemen egon zan?

- JA.: Bai, bai, ordun bai. Ordun eskolia... bai.

- Berton, Okamiken?

- Jesus: Herrixen. Herrixe, badakizu...

- JA.: Hor, herrixen, Gizaburuaga. Asko umetan ordun eskolan!

- Gizaburuagako danak bertara?

- JA.: Bai! Berrogeta hamar be igul maistra batek.

- Neska ta mutil?

- JA.: Bai, danak nahaste.

- JE.: Danak, danak.

- JA.: Jesus! Ernegau erain maistrieri...! Egurre...

- Ordun alkarregaz ibili ziñien eskolan?

- JE.: Bai.

- JA.: Apur bat bai.

- JE.: Baiña...

- JA.: Azkenengo urtetan hau ez.

- JE.: Ni zahartxua nitzen ta.

- JA.: Lau urte da zaharrao.

- JE.: Edo urtebete ariñaio urten. Ta holan.

- JA.: Maistrie ordun egurre [eukitten eban], palue edarra ta biher be bai. Hamen mahaixen [ganien...]. Palo bat ez, bi-hiru, urretx palo edarrak!

- Bai?

- JA.: Bai. Bai emon be! La ostra! Ta indar askoko maistrie egon zan hamen, bertoku bat, bertoko alabie. [...] mekauden, harek baeuken indarretan...! Ta Hak emon haretxeaz eitten eban, e! Hak indarraz. Harek txingak eruten zittun gero 50 kilokuk hartuta, aurrera! Ta hak badakizu zelako egurra emoten eban? Ostras!

- Zer dala ta?

- JA.: [...] ixilik, zuzen! Gauza haundirik biher ez hak.

- JE.: Batzutan kulpiaz jo barik apartau, baiña beste batzutan kulparik barik hartu bihar. Hori guri pasau jakun. Nire lagun bat... orduen sei-zazpi urteaz-edo sartzen zan eskolara. Ta ni baiño gaztetxuaua da ha ta hori sartu zan eskolara ni eskolan sartu ta ez dakit sei hilebete igul egongo nitzen. Ta hori lehelengo egunien sartu zan ta guk ez gendun... ez gendun... ze ordu ta ze istori, bestik juten zienien, olgetan baebizen, orduntxe segidu eureri eskolarako. Ta eskolara sartu ta gero, [...] ta atien osten plantau, atien ostien plantau bera ta gu goittik behera, [...] behera, plantau zan atzien ta tanka-tanka-tanka-tanka urretx paluaz danori golpe bana. Ta hau nire... hau [...] orduntxe jun zan eskolara ta...

- JA.: Lehelengoz, ezta?

- JE.: Lehelengoz. Ta hau jo ebanien puntie apurtu jakon zerari, urretx paluari, ta orduntxe amaittu zan jo bihera.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ikasgelako giroa eta materiala (GIZ-001/006)

Maistra euskalduna Gizaburuagakoa zena zen, besteak ez. Madalena izeneko maistra ere izan zuten, Bilbo ingurukoa. Berrogeita hamar ikasle inguru izaten ziren gelan. Arbeltxo bat eskuan hartu, mahairik gabe, eta hantxe idazten zuten. Ikasle nagusienek gazteenei erakusten zieten. Erdararik entzun ere ez zen egiten Gizaburuagan.

2. Kurike jolasa zela zen (GIZ-001/009)

Kurike jolasa azaltzen dute. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Errepidean jolasten zuten pilotarekin eta futbolekin. Apaiz gazteak zeuden Jesus eta Jabier ume zirenean, eta haiekin jolasean ibiltzen ziren.

3. Apaizak umeekin jolasean (GIZ-001/011)

Apaiz gazteek umeekin asko jolasten zuten. Sotana handiak erabiltzen zituzten soinean. Don Inaxiorekin zuzen ibili behar izaten zuten. Anekdotak bat kontatzen dute.

4. Gizaburuagako apaiz gazteak (GIZ-001/012)

Konfesatzera joan behar izaten zuten. Neska kontuak beti bekatu ziren. Seminarioan urte asko pasatu eta asko lehenengoz Gizaburuagara etortzen ziren apaiz. Batzuk izendatzen dituzte.

5. Maiorazgoa eta dotea (GIZ-001/014)

Goikoetxen belaunaldi askoan bizi izan dira. Etxe zaharra zen eta berritu egin zuten. Gehienetan mutila geratzen zen etxerako eta harekin ezkonduko zen neskak dotea, dirua eman behar izaten zuen.

6. Gurdi-soinua arrioa zeramanean (GIZ-001/016)

Arrioa gutxi ezagutu izan dute. Gurdi-soinua. Arropak, ohea, uztarriak... eramaten zituzten.

7. Gizaburuagako basoak (GIZ-001/017)

Herri-basorik ez da egon Gizaburuagan. Artea, haritza eta gaztainondo asko zeuden ume zirenean. Gaztainak jan egiten ziren erreta edo egosita eta saldu ere bai. Etxe askotan danbolina egoten zen.

8. Sutarako egurra eta haritza kontserbatzeko era (GIZ-001/018)

Sutarako egurra txararik hartzen zuten; artea, urritza... Denetarik izaten zen han. Normalean neguan mozten zuten. Haritza kontserbatzeko azaroko ilbeheran moztu, bertan utzi eta eguzkiak ondo lehortutakoan hartu behar izaten zela kontatu omen zion arotz zahar batek.

9. Uztargileak (GIZ-001/019)

Uztarria egiteko egurra uretan izaten zuten. Egur mota asko erabiltzen ziren uztarria egiteko. Intxaurra edo pagoa erabiltzen zituzten Goikoetxen. Bengolaerrotan egurra uretan zela egoten zen gogoan du Jesusek. Uztargileak aipatzen dituzte. Etxerik etxe ibiltzen ziren; egunak ematen zituzten etxe bakoitzean uztarria egiten zuen bitartean. Uhalak abereen narruarekin egiten ziren.

10. Abere bakoitzak bere uztarria (GIZ-001/020)

Abere bakoitzari egokitutako uztarria behar izaten zen. Abereak aldatuz gero, uztarria ere aldatu egin behar izaten zen gehienetan.

11. Ferratzaileak (GIZ-001/021)

Ferratzaileak ipintzen zizkien ferrak abereei. Lehenago Aulestira joaten ziren baina gero herrian bertan jarri zuten ferratokia. Zela egiten zuten kontatzen dute. Anekdotak kontatzen du Jabierrek. Behiei, idiei, astoei eta zaldiei jartzen zitzaion baina etxean ez dute astorik ferratuta ezagutu.

12. Txondorrek eta ikazkinak (GIZ-001/023)

Errentariak ez zuten ikatzik egiten. Txondorra zela egin eta zaintzen zen kontatzen dute. Pasadizo batzuk kontatzen ditu Jabierrek. Jesusek ikazkin bati gertatutakoa kontatzen du. Egurrik onena artea zen, bai sutarako eta bai ikatza egiteko. Gurbitza ere ona.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-05-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com